



AULESTIKO UDALA

Donibane enparantza, 1
Tel.: 946279006
Faxe: 946279117
48380AULESTI (Bizkaia)
e-mail: idadzkarria@aulesti.eus

BANDOA: COVID 19 GAITZAREN AURREAN **HARTUTAKO NEURRIAK**

Aulestiko Udalak instalazio publikoak itxi eta antolatutako ekintzak bertan behera itxi ditu

Aulestin ez dago Covid19 birusa daukan inor, baina Eusko Jaurlaritzak eta Osasun sailak emondako gomendioeri jarraituta, herritar asko batu ahal diran lekuak zarratzea eta ekintzak bertan behera iztea erabagi dau Aulestiko Udalak.

Martiaren 13tik, barikua, aurrera bertan behera itxiko ditu udalak antolatu dituen ekintza guztiak (hitzaldiak, bilerak...) eta zarratu egingo ditu udal eraikin guztiak (Kiroldegia, erabilera anitzeko gela, udal liburutegia, ludoteka, gaztetxea, elkarten gela, aretoa eta musika gelak). Datozen egunetan ekintzaren bat antolatu daben herriko taldeei ekintzok bertan behera izteko gomendioa luzatzen deuseguz.

Eusko Jaurlaritzak EAeko ikastetxe danak izteko erabagia hartu dau eta pentsetan dogu zentzuzkoena dala horregaz batera eraikin publikoak be zarratzea eta jendea batuko daben ekintzak ez egitea. Printzipioz neurri honek martiaren 27ra artekoak izango dira, bitartean kontrako irizpideren bat jaso ezean.

Udalak edozein informazio barri jaso bezain laster luzatuko deuseguz herritarroi informazino hori eta bitartean informazino iturri ofizialak kontuan hartzeko deia luzatzen deuseguz, beharrezkoa ez dan alarmismorik ez sortzeko.

Aulestin, 2020ko martiaren 12an.

ALKATEA,